

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA**29/2024 Foru Agindua, otsailaren 2koa. Onespena ematea 2024ko Basogintzarako Laguntza Planaren deialdirako laguntza eskaerak aurkezteko epea luzatzeari**

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2023 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzarako Laguntzen Planaren oinarri arautzaileak onetsi ziren. Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 819/2023 Erabakiaren bidez (2024ko abenduaren 27ko ALHAOn argitaratua), 2024rako basogintzarako laguntzen planaren deialdia onetsi zen, eta argitalpen horretatik aurrera 30 egun balioduneko epea ireki zen eskaerak aurkezteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 819/2023 Foru Erabakiaren laugarren xedapenak ahalmena ematen dio Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Inguruneak diputatuari erabaki hori garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren administrazio-egintzak eman ditzan.

Sektoreko eragileek adierazi dute arazoak dituztela deialdi honetarako laguntza eskaerak prestatzeko eta, beraz, epe hori oraindik amaitu ez denez, eskaerak aurkezteko epea luzatzea proposatzen da.

Nahitaezko txostenak aztertu ondoren, eta Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 819/2023 Foru Erabakiaren Foru Dekretuaren laugarren xedapenak emandako ahalmenak erabiliz, honako hau.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea otsailaren 19ra arte luzatzeari (egun hori barne) 2024ko Basogintzarako Laguntza Planaren deialdirako laguntza eskaerak aurkezteko epea.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 2a

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua
AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria
DAVID FERNÁNDEZ SARABIA